

KOSTUEN EGITURA

Kostuak oso garrantzitsuak dira enpresa bat aurrera eramateko. Azken finean, kostuak dira enpresaren funtzionamendua baldintzatzen duten osagai nagusia. Garrantzitsua da buruan izatea, hilabete amaieran irabaziak gastuak baino handiagoak izan behar direla.

Alde batetik, kostu aldakorrak daude. Hauek, enpresaren ekoizpenen arabera aldatzen diren kostuak dira, hau da, finkoak ez direnak. Gure kasuan, ezer ekoizten ez dugunez, gure jardueraren arabera aldatuko dira. Esate baterako, furgonetaren gasolina kantitatea guk egindako ibilbide eta distantziaren arabera aldatuko da, beraz, kostu aldakorra izango da. Gasolinaz gain, beste kostu aldakor batzuk ditugu:

- Gasolina + bidesariak.
- Produktuak: bezeroen erosketaren arabera aldatuko da, haien erosketa ez delako beti berdina izango eta kostua aldatzen joango delako.

Bestalde, kostu finkoak daude. Hauek aldatzen ez diren kostuak dira, eta enpresa nola joango den aurreikusten laguntzen dute. Honekin eta kostu aldakorrak gehituz, gutxi gorabehera kalkula dezakegu hilabete amaieran irabaziko dugun dirua, eta hauei erreparatuz, enpresa nola joango den aurreikusi dezakegu. Hauek dira gure kostu finkoak:

- Langileon soldata.
- Furgoneten alokairua.